

Koiuntura di-da batean

2019ko uztaila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
 2. Enplegua
 3. Inflazioa
 4. Konfiantza
 5. Espainiako ekonomia
 6. Ingurunea
- Eranskina

1. Gorantz zuzendu da 2019rako hazkundea.

Informazio berrienak iradokitzen du EAEko ekonomia %2,3 haziko dela.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,0tik gorako tasa bat lortu du, hainbat hilekoren ondoren.

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez-profesionalek enpleguaren bilakaera estaltzen dute.

3. EAEko inflazioa %1,0an kokatu zen maitatzean.

Ekaineko aurrerapenak pentsarazten du kontsumo prezioen indizea are gehiago apalduko dela.

4. Aurkia eta ifrentzia ekonomia eragileen igurikimenean.

Familiek irudi baikorra eskaintzen dute, enpresak zertxobait ezkorragoak diren bitartean.

5. Espainiako ekonomia bizkortu zen aurtengo lehen hiruhilekoan.

Kanpo arloak hamarren bat ekarri zion hazkunderari, esportazioak jaitsi baziren ere.

6. Eurogunea erritmo neurritsuan hazi da.

PMI adierazlea 50etik zertxobait gorago kokatu da, hedatze eremuaren barruan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


Gorantz zuzendu da 2019rako hazkundera

Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Koianturako adierazle ekonomiko batzuen informazio berriak eta EAEko ekonomiak 2019ko lehen hiruhilekoan duela hiru hileko espero zen baino bilakaera hobea izateak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu zituen aurreikuspenak berrikustea ekarri dute. BPGaren hazkunderako oraingo aurreikuspenek %2,3an kokatzen dute, urteko batez bestekoa, 2019ko tasa eta hamarren batean goratu dute aurreko hiruhilekoan argitaratu zen zenbakia. Datorren urteari begira, ez da inolako aldaketarik egin eta aurreikuspenak %2,0an jarraitzen du. Hiruhilekoen bilakaera aztertuta, hazkundera egonkorra espero da datozen hiruhilekoetan eta 2019ko laugarren hiruhilekotik aurrera, moteltze arin bat gauzatuko da. Hazkunderaren motorra barne eskariaren bizitasuna izango da, familien gastuaren egonkortasunean eta kapital eraketa gordinen oinarrituta.


Azken kontsumoa Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Hazkundearen lidergoan, eraikuntza eta zerbitzuak egongo dira. Eraikuntzak moteltze biziagoa ezagutuko duela aurreikusten da. Zerbitzuek, ordea, bilakaera egonkorragoa izango dutela espero da. Industriak, azkenik, suspertzeko joera erakutsiko du hemendik aurrera, 2018ko azken hiruhilekoan aldakuntza tasa negatiboa jaso eta gero.

Enplegu sorrera %1,7an kokatuko da 2019an eta %1,3an egongo da, berriz, 2020an. Tasa horiek esan nahi dute 16.000 eta 12.500 lanpostu garbi sortuko direla, hurrenez hurren, bi urte horietan. Langabezia tasa berriro jaitziko da datozen hiruhilekoetan eta %10,0aren azpian egon daiteke 2019ko bigarren sei hilekoan.

Enplegua
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa
Ehunekoak




GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,0tik gorako tasa bat lortu du, hainbat hilekoren ondoren

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira


Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioak oso portaera positiboa izan zuen ekainean EAEn, urte arteko aldakuntza tasa %2,1ean kokatuta. Halako baliorik ez zen pasa den urritik lortzen. Izan ere, apirilaren 1etik aurrera mendekotasuna duten pertsonak modu ez-profesional batean zaintzen dituztenek kosturik gabe kotizatu dezakete. Horrek azaltzen du zergatik urte arteko tasa hiru hamarren igo den aurreko hileko emaitzaren aldean. Beste aldetik, mendekotasuna duten pertsonen zaintza, nagusiki, emakumeek egiten dutenez, neurri horren eragina genero batean eta bestean oso ezberdina izan da. Zehazkiago adierazita, emakumeen artean aldakuntza tasa %2,8ra iritsi da, gizonezkoena %1,4an geratu zen bitartean.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak

Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak


Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko epealdietan ez bezala, tasen hobekuntza zerbitzuetan bakarrik gauzatu zen (ekainean %2,3 hazi zen, maiatzeko %1,9aren aldean). Aitzitik, bai industriak bai eraikuntzak bi eta hiru hamarrenetan moteldu zuten beren hazkunde erritmoa aurreko hilekoaren aldean. Zerbitzuek erakutsi zuten portaera ona oso lotuta dago lehenago aipatu den zaintza ez-profesionalari. Aurreko guztiaren ondorioz, gehikuntza tasa altuena eskuratu zuen jarduera adarra osasungintza eta gizarte zerbitzuena izan zen, %8,3ko tasa batekin. Orobat, hezkuntzak ere (%4,3) goranzko bilakaera esanguratsua lortu zuen.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2018ko ekaina	2019ko ekaina	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	953.783	973.417	19.634
Industria manufakturagileak	176.971	177.964	993
Merkataritza	139.317	139.155	-162
Osasun arloko jarduerak	94.825	102.671	7.846
Hezkuntza	69.263	72.248	2.985
Administrazio jarduerak	67.333	67.350	17
Ostalaritza	65.113	67.166	2.053
Eraikuntza	55.632	57.490	2.006
Lanbide jarduerak	55.484	56.934	1.302
Administrazio publikoa	47.713	48.282	569
Garraioa	41.315	42.443	1.128
Etxeko langileak	31.004	30.075	-929
Bestelako zerbitzuak	27.520	27.283	-237
Informazioa eta komunikazioa	22.486	23.249	763
Finantza jarduerak	18.147	18.173	26
Jarduera artistikoak	15.382	16.136	754
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.883	13.948	65
Ur horniketa	5.968	6.244	276
Higiezin jarduerak	4.022	4.161	139
Energia horniketa	1.759	1.814	55
Erauzketa industriak	583	568	-15
Lurraldez kanpoko erakundeak	61	62	1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

INFLAZIOA

EAEko inflazioa %1,0an kokatu zen maiatzean

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




INEk maiatzeko KPI indizeaz argitaratu dituen datuek adierazle horrek jaso duen moteltze nabarmena islatzen dute. Izan ere, aurreko hilekoaren aldean zazpi hamarren jaitsi da eta %1,0an kokatu, argindarraren merkatzeak eta erregaien igoera txikiagoak bultzatuta. Beraz, hiru hilekotan bizi zen igotzeko joera amaitu da. Orobat, ekaineko aurrerapenak pentsarazten du prezioen moteltzeko joerak hileko horretan ere jarraitu zuela.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	1,5	0,3
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	-0,2	0,0
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	2,7	0,3


Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa Dolarrak



Dagoeneko aipatu den erregaien garestitze txikiagoaren jatorria petrolio gordinaren salneurriaren beheranzko joeran datza. Izan ere, upelaren prezioa 64 dolarren inguruan ibili zen. Halako baliorik ez zen urte hasieratik jasotzen. Merkatze horren ondorioz, garraioaren aldakuntza tasa puntu bat eta hiru hamarren jaitzi zen, %4,7tik %3,4ra. Hala eta guztiz ere, aurreko epealdiaren aldean beherakada handiena izan zuen taldea etxebizitza izan zen. Hain zuzen ere, talde horren tasa %2,2tik %-0,5era murriztu zen, iazko garestitzearekin alderatuta, argindarrak aurten jaitsiera nabarmena izan zuelako. Orobat, azpimarratu behar dira aisialdia eta kultura taldearen (%-0,8) tasa negatiboa, apirilean Aste Santuaren eraginagatik balio positiboa jaso ondoren, eta edari alkoholdunak eta tabakoarena (%-0,2), edari alkoholdunen azpiatala balio negatibotan (%-0,8) kokatu zelako. Halakorik ez zen 2015eko amaieratik gertatzen.

KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko maiatza


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,0	0,8	1,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,1	0,5	1,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	0,6	3,0
Jantziak eta oinetakoak	1,2	0,9	0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-0,5	-0,3	2,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,6	0,5
Osasuna	0,0	0,8	0,7
Garraioa	3,4	1,8	2,0
Komunikazioak	0,3	0,2	-3,0
Aisia eta kultura	-0,8	-1,2	-0,8
Hezkuntza	0,8	1,0	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	2,3	2,2	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,9	1,3	1,5

Iturria: INE eta Eurostat.

EKONOMIA ERAGILEEN KONFIANTZA

Aurkia eta ifrentzua ekonomia eragileen igurikimenean

Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak EAEko familien konfiantzaz osatzen duen indizeak hobekuntza txikia adierazten du 2019ko bigarren hiruhilekoan eta 3ko balioa jaso du. Zenbaki hori aurreko epealdikoa baino puntu bat altuagoa da eta nolabaiteko finkatzea eta egonkortzea seinatzen du.

EAEko familiek hazkunde dinamikoa aurreikusten dute ekonomia orokorrean eta, nagusiki, igurikimen onak dituzte langabeziaren beheranzko bilakaeraz. Beste aldetik, kontsumitzaileek gero eta konfiantza handiagoa erakusten dute familiaren ekonomiaren etorkizunaz, baina zailtasunak daude emaitza horiek balio positibotan kokatzeko. Aurrezteko perspektibek susperraldiko ibilbidea baieztatzen dute, non 2019ko urtea inflexio gunea dela ematen baitu indize orokorraren osagai horren norabidean.


FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA								
	2017	2018	2018				2019	
			I	II	III	IV	I	II
Kontsumitzaileen konfiantza	1	1	1	2	-0,5	3	2	3
Ekonomia orokorra	6	3	5	3	1	3	2	3
Familien ekonomia	-5	-4	-6	-3	-4	-2	1	0
Langabeziaren bilakaera	12	10	12	15	5	7	4	8
Aurrezteko ahalmena	-10	-5	-10	-7	-5	3	-1	4
Prezioen bilakaera	-17	-23	-24	-18	-23	-25	-17	-17
Erosteke momentua	-3	-9	-5	-11	-15	-7	-2	-3
Erosketen gauzatzea	-7	-6	-3	-6	-5	-8	3	-1

Enpresarien konfiantza indizea



Beste aldetik, Laboral kutxak ere argitaratzen duen enpresarien konfiantza indizeak 51,0ko balioa jaso du 2019ko hirugarren hiruilekorako. Datu horrek narriadura esanguratsua ekarri du aurreko hiruhilekoan islatu zen baikortasunaren aldean. Oraindik 50eko langatik gora dagoenez, indizeak hedatze eremuaren barnean jarraitzen du. Hala ere, EAEko enpresek igurikimen ez hain baikorrak erakusten dituzte 2019ko uztailetik iraile-ra bitartean ekonomiak izango duen bilakaeraz. Enpresen ikuspegi ez hain baikor hori orokorra da indizearen osagai guztietan.

Enpresarien igurikimenak aldagaien arabera




Iturria: Laboral kutxa.

ESPAINIAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

Espainako ekonomia bizkortu zen aurtengo lehen hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



INEk argitaratu dituen datuen arabera, Espainia %2,4 hazi zen 2019ko lehen hiruhilekoan. Hazkunde horri esker, ekonomia espainiarrak indarra berreskuratu zuen, lau hiruhilekoz jarraian moteltzeko bideari atxikita. Barne eskariaren bizitasuna izan zen ekonomia jardueraren bultzagile nagusia. Familien eta enpresen ondareen egoera hobek, finantzaziorako baldintza egokiek eta lan merkatuaren egonkortasunak inbertsioa eta kontsumo pribatua gorarazi zuten. Barne eskariaren sendotasunak kontrastea egin zuen esportazioen ahultasunarekin, munduko merkataritzaren moteltzeak baldintzatuta hazkunde hutsala izan baitzuten, eta inportazioen jaitzierarekin, %0,5 murriztu baitziren. Bilakaera txar horren irakurketa positiboa da barne eskariak, lehenengo aldiz urtebete eta erdian, ekarpen positiboa egin ziola BPGari.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasak




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasak




Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek, maila agregatuan, hazkunde positiboak lortu zituzten, baita industriak ere, %0,1 hazi baitzen, 2018ko amaieran izan zuen jaitsieratik suspertuta. Eraikuntza izan zen berriro dinamikoena, baina bizitasuna galdu zuen aurreko hiru hilabetearen aldean. Dena dela, hazkunde sendoa izan zuen. Zerbitzuek, berriro, goranzko ibilbide leunari eutsi zioten eta gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten adar guztietan.

Joera bera hauteman zen lan merkatuan, ia adar guztiek enplegua sortu zutelako. Salbuespen bakarra lehen arloa izan zen, berriro behera egin baitzuten. Hain zuzen ere, enplegua %2,8 hazi zen, lanaldi osoko 510.000 enplegu garbi sortuz.

Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



ENPRESARIEN KONFIANTZA


Eurogunea erritmo neurritsuan hazi da

PMI konposatua. Eurogunea








2018an zehar moteltze bizia ezagutu ondoren, Euroguneke PMI adierazle konposatuak egonkortasuna erakusten du orain, hedaldia eta atzeraldia banatzen dituen 50eko langatik zertxobait gorago dagoen maila batean. Hain zuzen ere, ekainean 52,1eko zenbakia eskuratu zuen. Beraz, adierazle horrek iradokitzen du ekonomia europarra erritmo neurritsuan hazten ari dela oraindik. Indizearen bi osagaietatik, manufakturrek eskaintzen dute perfil negatiboena, ekainean 47,8ko balio batekin eta suspertzeko zantzurik erakutsi gabe. Aitzitik, zerbitzuen adierazleak 53,4ko datua izan zuen hileko berean, nolabaiteko sendotasuna erakutsiz. Halaber, datu hori azken zazpi hilekoetako altuena da.

Manufakturen PMI. Eurogunea




Zerbitzuen PMI. Eurogunea



PMI konposatua. Alemania**PMI konposatua. Frantzia****PMI konposatua. Erresuma Batua****PMI konposatua. Itaia**

Europako bost herrialde nagusiek bilakaera ezberdinak erakusten dituzte. Izan ere, Alemaniak hedatze leuneko tonuari eusten dio, 2013tik erakutsi zuen sendotasunetik urrun. Automobilgintzaren eta nazioarteko merkatuaren arazoek manu-faktu-ren sektorearen igurikimenak okertu dituzte.

Frantzia konfiantza oso azkar berreskuratzen ari da eta hobekuntzak begi bistakoak dira bai manu-faktu-retan bai zerbitzuetan. Erresuma Batuan adierazleak behera egin du, baina oraindik 50etik gora dago. Beste aldetik, Italiak balio positiboak eta negatiboak tartekatzen ditu. Azkenik, Espainia maila altu batetik abiatu da, baina jaitsiera garrantzitsua izan du zerbitzuetan.

PMI konposatua. Espainia

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
BPG	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,3
Familien kontsumoa	3,0	2,6	2,9	2,6	2,3	2,6	2,2
Administrazioaren kontsumoa	2,4	1,7	2,6	2,0	1,2	0,8	2,0
Kapital eraketa gordina	3,3	4,1	3,7	4,8	4,0	4,1	4,1
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	3,0	2,5	2,6	2,6
Esportazioak	4,7	3,0	6,7	2,9	2,2	0,3	-1,4
Inportazioak	4,8	3,0	6,4	3,1	2,1	0,6	-0,9
Lehen arloa	6,8	2,3	-3,0	0,8	-4,6	17,1	8,4
Industria	3,1	2,1	3,7	3,1	1,9	-0,2	0,4
Eraikuntza	3,8	4,3	2,7	4,1	4,8	5,6	5,1
Zerbitzuak	2,7	2,9	3,1	2,8	2,7	2,9	2,7
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,3
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	3,1	2,8	2,6	2,5	2,3

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019			2019	2020
	II	III	IV		
BPG	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Barneko azken kontsumoa	2,2	2,0	2,1	2,1	1,8
Familien kontsumoa	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,7
Kapital eraketa gordina	3,9	3,7	3,7	3,9	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,5	2,6	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	-7,6	1,5	-5,3	-0,7	-7,8
Industria	1,2	1,6	1,9	1,3	1,8
Eraikuntza	4,3	3,5	3,3	4,0	2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,0	1,9	2,1	1,8
Enplegua	1,8	1,7	1,4	1,7	1,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
Laboral Kutxa	2,4	—	Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,1	2,0
BBVA	2,2	2,0	CEPREDE	2,0	1,7

Iturria: CEPREDE (2019ko ekaina), BBVA (2019ko ekaina), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko abendua), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2018ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	
BPG	3,0	2,6	2,9	2,6	2,5	2,3	2,4
Kontsumo pribatua	2,5	2,3	3,0	2,3	2,0	2,0	1,5
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,2	2,0	2,2	2,2	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	3,9	7,5	5,3	4,4	4,7
- Aktibo finko materialak	5,1	5,8	4,1	8,4	5,9	4,8	5,4
- Eraikuntzan	4,6	6,2	5,8	7,0	5,7	6,3	4,3
- Ekipamendu ondasunetan	6,0	5,4	1,9	10,6	6,3	2,8	7,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,5	2,1	2,9	2,3	1,5	1,9	0,0
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	2,9	3,1	3,3	2,7	2,5	2,2
Esportazioak	5,2	2,3	3,8	2,6	1,7	1,0	0,0
Inportazioak	5,6	3,5	4,8	5,1	2,3	1,7	-0,5

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,4	2,1	IEE	2,1	—
Axesor	2,3	1,9	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,2	1,9	Repsol	2,2	1,9
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,1	1,9
CaixaBank	2,3	1,9	Solchaga Recio & asociados	2,4	2,0
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,0	1,9	BATEZ BESTE	2,2	1,9
Cemex	2,3	2,0	Gobernua (2019-04)	2,2	1,9
CEEM-URJC	2,1	1,9	Espainiako Bankua (2019-03)	2,2	1,9
CEPREDE-UAM	2,4	2,0	Europar Batzordea (2019-02)	2,1	1,9
CEOE	2,1	1,8	NDF (2019-04)	2,1	1,9
FUNCAS	2,2	1,8	ELGE (2019-05)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-06)	2,3	1,8

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutense; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
AEB	2,2	2,9	2,6	2,9	3,0	3,0	3,1
Txina	6,9	6,6	6,8	6,7	6,5	6,4	6,4
Japonia	1,9	0,8	1,4	1,4	0,1	0,3	0,9
Kanada	3,0	1,8	2,2	1,8	2,0	1,6	1,3
Europar Batasuna	2,4	2,0	2,4	2,2	1,9	1,5	1,5
Eurogunea	2,4	1,9	2,4	2,2	1,7	1,2	1,2
Alemania	2,2	1,4	2,1	2,0	1,2	0,6	0,7
Frantzia	2,3	1,7	2,4	1,9	1,5	1,2	1,2
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,2	1,4	1,6	1,4	1,8
Italia	1,7	0,9	1,4	1,0	0,5	0,0	-0,1
Herbehereak	2,9	2,7	3,2	3,0	2,3	2,0	1,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,5	1,8	1,9	2,1	3,7	3,7
Japonia	0,8	0,4	0,6	0,9	2,4	2,4
Kanada	1,4	1,7	1,9	2,0	5,7	5,8
Europar Batasuna	1,4	1,5	1,5	1,6	—	—
Eurogunea	1,1	1,3	1,3	1,4	7,7	7,5
Alemania	0,8	1,4	1,5	1,6	4,9	4,9
Frantzia	1,3	1,3	1,2	1,4	8,5	8,4
Erresuma Batua	1,4	1,4	1,9	2,0	4,0	4,1
Italia	0,1	0,5	0,9	1,2	10,6	10,6
Espania	2,3	1,8	1,1	1,4	—	—
Herbehereak	1,6	1,6	2,4	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.